

## **BALOREZKO PROPASAMENA**

**BERRITASUNA**—> Ez dago janari osasuntsu azkarra prestatzen duten jatetxe askorik. Behintzat ez dira oso ezagunak eta guk hori aldatu nahi dugu.

**DISEINUA**—> Erakargarria egingo dugu tematika konkretu batekin; hala nola, barazkien argazkiak jatetxean zehar eta kirolarekin zerikusirik duten tematika ere. Oso garrantzitsua baita jendea produktuaren lehenengo iritziarekin erakartzea.

**LANA ERRAZTEA**---> Gure helburu nagusia presaka dabilen jendearen lana erraztea da. Etxean janaria prestatu beharrean, edo edozein gauza erosi beharrean, merke eta osasuntsu jan dezaten. Lehendik prestatutako produktuek, azkenean bizitza errazten diote edonori, are gehiago osasuntsuak badira.

**PERTSONALIZAZIOA**---> Gure produktuak denbora gutxi duen jendeari zuzenduta egongo dira, gehienbat lanagatik izaten den arrazoi bat. McDonalds jatetxeen eredu berdina jarraitzen, gure kalitate garrantzitsuenak janari osasuntsua eta zerbitzu azakrra izango da. Aldi berean, bizitza osasuntsua eramateko prest dagoen jendearentzat izango da.

Gainera, emango dugu aukera bezeroei bere gustuko "bowl" egiteko.

**PRESTAZIOAK**---} Enpresaren helburu oso garrantzitsu bat da gure prestazioak nolabait gure janaria eta janaria zerbitzatzekoko erabili behar ditugun platerak, edalontziak, mahai-tresnak jatorri ekologiko batetik etortzea. Bestalde, janaria ahalik eta osasuntsuena izatea eta kalitate onekoa izatea da gure nahia. Gaur egun aldaketa klimatikoa dela eta, kontziente gara enpresek duten eragin handian, eta, horregatik, gure enpresa, nahiz eta lan erraza ez izan, saiatuko da baliabide ekologikoak eskuratzen eta baita ahal den guztia berziklatzen ere.

**PREZIOA**----} Kalitatezko produktuak ez dira merkeak eta espero dugu gure menua janari azkarren enpresen baino pixka bat altuagoa izatea. Konturatzen gara problema honetaz, horregatik eskualdeko eta nazioaren elikagai enprekin elkartzeko gara elikagai onak eta prezio hoberena eskuratzeko. Menu ez hain garestiak aterako ditugu horrela gure zerbitzuak denok eskuratzeko.

**ARRISKU MURRIZTEA**---} Gure bezeroak ongi eta osasuntsu jan nahi duten pertsonak izango direnez, tentazio txarretan erortzeko arriskua ez da egongo, dena modu polit goxo eta egokian prestatuko dugulako.

**ESKURAGARRITASUNA**---} Guk egin nahi duguna da jendeari janari osasuntsu bat saltzea kalean bertan, horrela, osasuntsu jateko etxean jan egin behar duzula mitoa

kentzen. Horregatik, jendeak eskuragarri izango du ondo jatearen aukera, janari kaltegarriaren eskuragarritasuna aitzaki bezala ez erabiltzeko.

**ERABILERRAZTASUNA---**} Enpresaren helburu bat da kaleko jendeari janari osasuntsua eskuratzen erraztea. Gainera, eskeiniko diren platerak, menuak etab. “fast-food” enpresa bat izatean, “take-away” aukera egongo da, nahi den lekuan jateko.